Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4725

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 1ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzuen zuzendariarena, Feliciano Echevarria Calle jaunak SD2-01515/03 espedientea dela-eta aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ebazten duena.

AURREKARIAK

1.– Jardun hauen oinarria Feliciano Echevarria Calle jaunak eta María Villalgordo Martínez andreak 2003ko otsailaren 25ean etxebizitza-eskatzaileen Erregistroan erregistratzeko egindako eskaera da.

2.– Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako iragarki-taulan abuztuan ipini zen Bizkaiko lurralde-ordezkariaren ebazpenaren bitartez, María Villalgordo Martínez andreari eskatu zitzaion hilabete hartako 20a baino lehen Briviescako Jabetzaren Erregistroan aurkitutako ondasun higiezinen titulartasuna kreditatzeko, higiezinaren mota daukan titulua eta partaidetza-ehunekoa adierazten duen eskritura publikoaren ohar soila edo kopia aurkeztuz.

Eskaera horri erantzunez, Briviescako jabetzaren erregistroaren ohar soil informatzailea aurkeztu zen, zeinaren bitartez adierazten den eskatzaileen alaba Nerea Echevarria Villalgordo andreak etxebizitzaren jabetza soilaren % 100 duela salerosketa baten ondorioz, eta bakoitzak etxebizitza horren biziarteko eta jarraikako usufruktuaren erdia duela salerosketa-tituluaren bitartez.

3.– 2008ko abenduaren 1ean, Bizkaiko lurralde-ordezkariak ebazpena eman zuen, eta babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileen erregistroan erregistratzeko eskaerari baja eman zion, etxebizitza edukitzeagatik.

4.– 2008ko abenduaren 18an, Feliciano Echevarria Calle jaunak gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen aurreko ebazpenaren aurka, ez baitzegoen horrekin ados, eta alegatu zuen bere alabaren titulartasuneko etxebizitza ez dela bizitzeko egokia. Quintanilla San Garcíako alkate Juan Miguel Busto jaunak sinatutako idazkia gaineratu du, bertan honako hau adieraziz: «Aipatutako Udalerriko Juan Carlos etorbidean dagoen Nere Etxebarriaren jabetzako etxea ez-bizigarritzat bezala deklaratuta dago». Hori guztia zela-eta, errekurritutako ebazpena berriz aztertzeko eskatu zuen.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

4725

RESOLUCIÓN de 1 de abril de 2009, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por D. Feliciano Echevarria Calle en el expediente SD2-01515/03.

ANTECEDENTES

1.– Las presentes actuaciones tienen su origen en la solicitud de inscripción en el Registro de solicitantes de vivienda formulada por D. Feliciano Echevarria Calle y Dña. María Villalgordo Martínez con fecha 25 de febrero de 2003.

2.– Por resolución del Delegado Territorial en Bizkaia publicada en el Tablón de anuncios de la Delegación Territorial en Bizkaia del mes de agosto, se le requiere a Dña. María Villalgordo Martínez para que, antes del 20 del mismo mes, acredite la titularidad de bienes inmuebles detectada en el Registro de la Propiedad de Briviesca, mediante la aportación de nota simple o copia de la escritura pública en la que conste tipo de inmueble, titulo que ostenta y porcentaje de participación.

En contestación a dicho requerimiento, nota simple informativa del registro de la propiedad de Briviesca, según el cual Dña. Nerea Echevarria Villalgordo, hija de los solicitantes tiene el 100% de la nuda propiedad de una vivienda por compraventa y D. Feliciano Echevarria Calle y Dña. María Villalgordo Martínez, cada uno tiene la mitad del usufructo vitalicio y sucesivo de la misma vivienda por título de compraventa.

3.– Con fecha 1 de diciembre de 2008, el Delegado Territorial en Bizkaia dicta resolución por la que se da de baja la inscripción en el registro de solicitantes de vivienda de protección oficial por disposición de vivienda.

4.– Con fecha 18 de diciembre de 2008, D. Feliciano Echevarria Calle interpone recurso de alzada contra la anterior resolución mostrando su disconformidad con la misma alegando que la vivienda de la que es titular de su hija no es habitable. Adjunta escrito firmado por D. Juan Miguel Busto, Alcalde de Quintanilla San García, según el cual, «la casa propiedad de Nerea Etxebarria sita en la Avenida Juan Carlos del citado municipio, está declarada como no habitable». Solicita la revisión de la resolución recurrida.

Aurrekari horiek kontuan hartuta azaltzen dira honako

OINARRIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzuen zuzendariari dagokio aztergai dugun gora jotzeko errekurtsoa ebaztea, eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera aztertu da.

2.– Errekurtsogileak interesduna dela ziurtatu du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen —Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa— 31. artikuluak adierazten dituen ondorioetarako, eta errekurtsoa, berriz, lege beraren 114. eta 115. artikuluek zehazten duten epearen barruan eta behar den moduan aurkeztu da; artikulu horiek urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zituen.

3.– Etxebizitza-eskatzaileen erregistroa arautzen duen 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren 3. artikuluak ezartzen du eskabide bat etxebizitza-eskatzaileen erregistroan altan emateko eska daitezkeen baldintzak honako hauek direla:

Eskatzaileetako batek gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatua egon beharko du eta bertan egiazko bizilekua izan beharko du. Kontrako frogarik ezean, erroldako etxebizitza hartuko da egiazko bizilekutzat.

Eskatzaileek eskatutako erregimenaren arabera etxebizitza lortzeko eskatzen diren gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerak ziurtatu beharko dituzte.

Inskribatze-eskaera egin aurreko bi urteetan, eskatzailerik ezin izango du Erregistroan baja eman, Agindu honen 4. artikuluko 5. eta 6. idatz-zatietan ezarritako arrazoiengatik.

Eskatzaile guztiek eta bizikidetza-unitateko gainerako kideek ez dute eduki beharko jabetzako, azalera-eskubideko edo usufruktuzko etxebizitzarik, erregistroan inskribatzeko eskaera egin den egunean.

Aztergai dugun kasuan, espedientea aztertu ondoren egiaztatu da errekurtsogilea eta haren emaztea Quintanilla San Garcían dagoen etxebizitza baten biziarteko eta jarraikako usufruktuaren 1/2aren titularrak direla bakoitza, erosketa-tituluaren bidez, eta haien alaba Nerea Echevarria andrea etxebizitza horren jabetza soilaren % 100en titularra dela erosketa-tituluaren bidez, eta ezin zaio aplikatu etxebizitzarik ez edukitzearen betekizunari buruz araudian ezarritako salbuespen bakar bat ere ez, eta horregatik ebazpena zuzenbidearekin bat dator eta berretsi egin behar da.

Sobre la base de estos Antecedentes se formulan los siguientes

FUNDAMENTOS

1.– El Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales es el órgano competente para resolver el recurso de alzada que se examina a tenor de lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

2.– El recurrente acredita la condición de interesado a los efectos prevenidos en el artículo 31 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, habiendo sido interpuesto el recurso en tiempo y forma establecidos en los artículos 114 y 115 de la citada norma, modificados por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.– El artículo 3 de la Orden de 16 de abril de 2008, reguladora del Registro de Solicitantes de vivienda, establece que los requisitos exigibles para que una solicitud sea dada de alta en el Registro de solicitantes de vivienda son:

Al menos uno de los solicitantes, habrá de estar empadronado y tener residencia efectiva en el País Vasco. Salvo prueba en contrario se presumirá que la residencia efectiva es la del domicilio del empadronamiento.

El conjunto de los solicitantes deberá acreditar ingresos entre el mínimo y el máximo exigidos para el acceso a vivienda según el régimen de acceso solicitado.

Ninguno de los solicitantes habrá sido dado de baja en el registro, en los dos años anteriores a la solicitud de inscripción, por los motivos establecidos en el artículo 4, apartados 5 y 6 de la presente Orden.

Tanto los solicitantes como el resto de miembros de la unidad convivencial, deberán carecer de vivienda en propiedad, derecho de superficie o usufructo a la fecha de la solicitud de inscripción en el registro.

En el supuesto que nos ocupa, examinado el expediente se comprueba que el ahora recurrente y su esposa son titulares cada uno de 1/2 del usufructo vitalicio y sucesivo una vivienda en Quintanilla San García, por titulo de compra y su hija Dña. Nerea Echevarria es titular del 100% de la nuda propiedad de dicha vivienda por título de compra, y no le es aplicable ninguna de las excepciones señaladas en la normativa al requisito de carencia de vivienda, por lo que la resolución es ajustada a Derecho y debe confirmarse.

Azaldutako oinarriak, adierazitako xedapenak eta horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Feliciano Echevarria Calle jaunak Bizkaiko Lurralde Ordezkariak SD2-01515/03 espedientean emandako Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezestea, dagozkion zuzenbidearen araberako terminoetan berretsi behar baita Ebazpen hori.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez badaiteke ere, Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako epea jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunean kontatzen hasi eta bi hilabetekoa izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 1a.

(Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko urtarrilaren 23ko Aginduz, zeinaren bidez Zerbitzu zuzendariari emandako eskumenak eta funtzioak bere gain hartzen dituen (2009ko urtarrilaren 26ko EHAA).

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones citadas y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Desestimar el recurso de alzada interpuesto por D. Feliciano Echevarria Calle contra Resolución del Delegado Territorial de Bizkaia recaída en el expediente SD2-01515/03, en cuyos términos ajustados a Derecho ha de confirmarse.

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de los de Bilbao en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de abril de 2009.

(Por Orden de 23 de enero de 2009 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales por la que se asume el ejercicio de las competencias y funciones atribuidas el Director de Servicios, publicada en el BOPV de 26 de enero de 2009)

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.